

GEROKULTOREAK ETA ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEAK BEHAR DITUGU

Eskakizunak

Gutxieneko esperientzia: ez da beharrezkoa

Gutxieneko eskakizunak:

- Erizaintzako Zaintza Osagarrietako Gradu Ertain Teknikoa
- Institutio Sozialetako Gizarte eta Osasun Arretarako teknikaria
- Ziurtagiri profesionala

Azalpena

Babesten Taldean, gerokultore bila gabiltza, egoitzetan eta eguneko zentroetan ditugun profesionalen diziplina anitzeko taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, laguntzaileen koordinatzaileen eta erizaintzako langileen menpean:

- Erabiltzaileei oinarrizko eta banakako zainketak ematea, eguneroko bizimoduan euren kabuz egiterik ez duten jarduerak betetzeko. Horretarako, beti-beti, haien gehieneko ongizatea zein bizi-kalitatea bilatzea izango da helburua, eta diziplina anitzeko taldeak banakako arretarako planetan adierazitako jarraibideak hartuko dira kontuan.
- Profesionalen taldeari laguntzea eta harekin lan egitea. Horretarako, zerbitzu espezializatuen osagarri diren funtsezko zereginak egitea, erabiltzaileei ahalik eta autonomia handiena emateko, gizarteratzeko eta familian sartzeko.

Honako hauexek izango dira haien eginkizunak:

Zentroko antolakuntzari dagokionez:

- Arreta-maila guztietan, arauen eta zainketaren plangintzaren araberrako zainketak ematea.
- Erabiltzailearen egoeraren araberrako higiene pertsonaleko eta erosotasuneko jarduerak egitea, horretarako zehaztutako lan-planak kontuan hartuta.
- Egoitzako eginkizunen planaren araberra, erabiltzaileen tresnak garbitzea eta artatzea, oheak egitea, arropa batzea, garbilerkura eramatea eta logelak artatzen laguntzea.
- Janaria jasotzea eta erabiltzaileei banatzea.
- Erabiltzaileen osasunaren inguruan gertatutako gorabeheren berri ematea horretarako zehaztutako formatuan eta euren koordinatzaileari edo txandako arduradunari haien berri ematea.
- Botika-gelako altzariak, materialak eta tresnak garbitzea eta prestatzea.
- Erabiltzaileen prozesu patologikoak eta intimitateko gaiak isilpean gordetzea.

- Erabiltzaileak zentrotik kanpo egingo diren hitzordu medikoetarako prestatzea, Medikuntza Sailak eta Erizaintza Sailak zehaztutako jarraibideen arabera.
- Agindutako sendagaiak ematea, erizaintzaren ikuskaritzapean.
- Euren jardueraren bitartez sortutako informazioa erregistratzea zentroko Zuzendaritzak adierazitako eta Kalitate Eskuliburuan zehaztutako formatuetan edota tresnetan.
- Oro har, lehenago zehaztu ez diren arren agintzen dizkieten jarduera guztiak egitea, betiere, haien lanbidearen zein prestakuntza teknikoaren arabera badira eta lehenago adierazitakotakoarekin zerikusirik badute.

Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

- Erabiltzaileen higie pertsonalerako zainketak egitea.
- Euren kabuz egiterik ez dutenean, erabiltzaileei jaten ematea.
- Erabiltzaileei irteeretan, osteratxoetan, kudeaketetan, txangoetan, jokoetan eta, oro har, astialdian laguntzea.
- Jarrera-aldaketak egitea eta haien prestakuntza teknikoaren arabera agintzen dizkieten zerbitzu osagarriak garatzea.

Zentroko langileei dagokienez:

- Laguntzaileen eta erizainen arduradunen menpeko langileak direnez, agintzen dizkieten zeregin guztietan haiekin lan egitea, erabiltzaileei eta haien familiei ahalik eta arreta onena emateko.
- Koordinaziopean lan egitea, haien gaintik dauden profesionalen ardurapean.
- Profesionalen taldearekin lan egitea. Horretarako, zerbitzu espezializatuen osagarri diren funtsezko zereginak egitea, erabiltzaileei autonomia emateko eta gizarteratzeko.
- Erabiltzaileekin garatutako harreman edo jarduera guztietan, kasuan kasuko profesionalak emandako laguntza, hezkuntza eta prestakuntza osatzen ahalegintzea.

Eskaintzen duguna

- Adinekoentzako laguntzaren sektoreko lana Bizkaian liderra den erakundean (gu ezagutzeko, Babesten Taldearen profila ikusi Linkedinen).
- Gure zentro guztiak Bizkaiko Foru Aldundiarekin daude itunduta.
- Lanaldi osoa, lanaldi partziala eta goizeko, arratsaldeko edo gaueko ordutegirako aukera.
- **Bizkaian ditugun zentroetan eta eguneko zentroetan egindako kontratua (Bilbo, Sestao, Muskiz, Basauri, Bermeo...).**

Gurekin lan egin nahi baduzu:

Bidali Zure CVa